

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

EUSKAL EKONOMIAKO ETA ENPRESETAKO ATZERRIKO ZUZENEKO INBERTSIOAREN ANALISIA ETA LEHIAKORTASUNEAN DUEN ERAGINAREN BALIOESPENA

LABURPEN EXEKUTIBOA

04/2024 zk.

 <https://doi.org/10.18543/FRJR6381>

Bart Kamp

Francisco Carrillo


Francesco Pescarin


CUADERNOS ORKESTRA, 04/2024 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoa gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/UNQI4092>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/FRJR6381>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/NPZA6530>

© Bart Kamp, Francisco Carrillo, Francesco Pescarin

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua –Deustu Fundazioa

www.orquestra.deusto.es/eu

Esker ona

CAFek eta Tubacexek eskainitako laguntza eskertu nahi dugu; bi enpresek azterketa honekiko erakutsi duten konpromisoa –denborari eta baliabideei dagokienez– oso esanguratsua eta garrantzitsua izan da.

Laburpen exekutiboa

Atzerriko zuzeneko inbertsioa (AZI), bai herrialdera sartzen dena eta bai herrialdetik ateratzen dena, garrantzi handikoa da herrialde baten ekonomiarako, hazkunde ekonomikoa lortzen, enplegua sortzen, teknologia transferitzen eta mugaz haraindiko balio kateetan eta nazioarteko espazio ekonomikoetan integratzen laguntzen duelako. Atzerrian enpresa egituretan inbertitzea ekonomia baten heldutasunaren, sofistikazioaren eta lehiakortasunaren adierazle da; era berean, lurralde batek atzerriko zuzeneko inbertsioa erakartzeko duen gaitasuna bere erakargarritasunaren, ekoizpen faktoreen lehiakortasunaren, inbertsio giroaren eta merkatuetan duen integrazio mailaren (eskala handiko eta/edo eskakizun maila handiko eskaria ezaugarri duena) adierazle da.

Hedaduraz, eta Ekonomia berreskuratu eta eraldatzeko proiektu estrategikoekin (PERTE); Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planarekin; eta Europak COVID-19aren krisiak eragindako kalteak arintzeko eskaintzen dituen bitartekoekin, nazio eta eskualdeetako gobernuek gero eta interes handiagoa dute PERTEetan jasotako proiektuak sustatzeko eta aurrera eramateko orduan atzerriko inbertsiogileak inplikatzeko. Horrek nolabaiteko lehia sortzen du "policy maker"-en artean, eta lasterketa horretan parte hartu nahi duen lurraldeak zenbateko erakargarritasuna eta arrakasta duen diagnostikatzeko interesa sortzen du.

Hori jakinik, "Euskal ekonomiako eta bertako enpresetako atzerriko zuzeneko inbertsioaren analisia" txostenak Euskal Autonomia Erkidegora sartzen den eta bertatik ateratzen den zuzeneko inbertsioa ditu aztergai. Datuek erakusten digute sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa euskal enpresek atzerrian egiten duten zuzeneko inbertsioa baino txikiagoa dela, aztertutako aldi osoan. Era berean, sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa sektore eta eragiketa gutxi batzuetan kontzentratzen da, eta gehiena, gainera, dagoeneko martxan dauden enpresak eskuratzearen bidetik sartzen da.

Greenfield moduan, hau da, enpresa proiektu berriak sortzeko, eta dagoeneko abian dauden instalazioak zabaltzeko edo hedatzeko sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioak Euskadin sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioaren ehuneko oso txikia hartzen du; inbertsioaren zatirik handiena eskuratzeetara bideratzen da.

EAEen sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa, sartzeko moduaren arabera, , banakako eragiketak oinarri hartuta

Sartzeko modua	Gutzizkoaren ehunekoa 2014-2021 aldirako
Eskuratzea	% 87
<i>Greenfield</i>	% 1
Hedapena	% 12

Iturria: Geuk egindako inbentarioa, FDI Markets, SABI eta prentsa oharretako informazioan oinarrituta..

Euskal ekonomiako eta bertako enpresetako atzerriko zuzeneko inbertsioaren analisi honetarako erreferentzia gisa erabili ditugun hiru autonomia erkidegoekin alderatuta, EAEko emaitzak Nafarroako eta Kataluniako emaitzen antzekoak edo hobeak dira azertu dugun aldian, baina oso urruti gelditzen dira Madrilek lortzen dituenetatik (herrialdeko hiriburua izanik, atzerriko enpresen ordezkari nagusi eta egoitza sozial asko hartzen ditu; horrenbestez, atzerriko zuzeneko inbertsioa hiriburuan eta inguruan kontzentratzen da).


Autonomia Erkidego bakoitzean sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioa, BPGren ehunekoan adierazita

Autonomia erkidegoa	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2014-2020ko batezbestekoa
Katalunia	1,57	2,69	3,89	1,55	1,93	1,62	1,46	2,10
Madril	11,68	11,32	11,61	16,34	40,27	12,4	16,89	17,22
Nafarroa	0,16	0,25	4,48	0,19	0,98	0,6	0,63	1,04
Euskal Autonomia Erkidegoa	4,14	2,37	3,19	2,47	2,77	1,21	2,42	2,65

Iturria: Geuk egina, DataInvex-eko datuekin.

Atzerriko erosleek eskuratutako hogeit bat euskal enpresetako produktibitatearen bilakaera aztertuz, eta enpresa horiek atzerriko kapitalak eskuratu aurretik sektoreko produktibitatea baino handiagoa edo txikiagoa zuten bereiziz, ondoriozta dezakegu eskuratutako enpresen produktibitateak hobera egin zuela eskuratu ondorengo aldian. Horrela, atzerriko zuzeneko inbertsioak enpresa horien lehiakortasuna hobetzen lagundu zuen.

Laneko produktibitatearen bilakaera eskuratze urtetik aurrera



Iturria: Geuk egina, SABI eta Eustateko datuekin.

Azkenik, azterketa kualitatibo osagarri bat egin dugu, atzerriko entitateek eskuratu dituzten euskal enpresetako batzuen esperientzia ezagutzeko. Azterketa horrek erakusten du euskal enpresa horiek iritzi positiboa dutela atzerriko inbertsiogile bat jabetzan sartzeak ekarri dituen ondorioen inguruan; izan ere, uste dute produktu eta merkatu berriak garatzeko potentzialak eta inbertitzeko eta hazteko gaitasunak hobera egin dutela eta/edo enpresak gainbehera egiteko arriskua saihestu duela.

Egindako azterketatik hainbat gomendio ondoriozta daitezke euskal ekonomian erabakiak hartu behar dituzten eragileentzat eta, bereziki, euskal erakundeentzat, sartzen den atzerriko zuzeneko inbertsioari eragiten dioten alderdiei buruz. *Greenfield* atzerriko zuzeneko inbertsioa handitu nahi bada, hainbat alderdi landu behar dira lurraldean:

- Enpresa lurzoruaren eta higiezinaren politika: industrialde eta enpresa parkeetan lur eraikigarria eskura edukitzea/sortzea, industria eta logistikako enpresetarako eta datu zentroetarako, eta garraio azpiegituretako konexioak (multimodalak) ziurtatzea.
- Teknologia eta jakintza arloko azpiegituren politika: zentro teknologikoak eta I+Gkoak edukitzea/sortzea, batez ere balio erantsi handiko enpresa jarduerak erakartzeko, aktibo horiek hurbil edukitzeaz balia daitezten.
- Industria/kluster politika: tokiko hornidura kateak garatzea/sendotzea, ekoizpen konplexuetara bideratzen diren eta hirugarrenen input sofistikuak behar dituzten manufaktura inbertsioek hurbileko hornidura sareak izan ditzaten. Horrekin lotuta, lurraldeko enpresetan eraldaketa digitala bultzatzea, atzerriko zuzeneko inbertsioarekin finantzatutako *Smarteko* proiektuekiko elkarreraginak errazteko.
- Lan arloko politika: lan giro lasaia sustatzea, industria harreman onak eta absentismo tasa txikia.
- Hezkuntza politikak: langileen artean jakintza eta gaitasunen (digitalak) etengabeko garapena ahalbidetuko duen hezkuntza eskaintza artikulatzea, lurraldera atzerriko talentua erakartzen laguntzeko, tartean prestakuntza adinean dagoen talentua ere hartuta.
- Integrazio politikak: atzerritik datozenentzako *soft landing* (lurreratze leuna) aukerak zabaltzea, ostatuari, gizarteratzeari edo eskolei dagokienez.
- Ingurune segurua eskaintzea: segurtasunak (bai juridikoak, bai fisikoak) lurralde batek atzerriko zuzeneko inbertsioa eskuratzeko duen erakargarritasunari laguntzen dio eta zuzeneko lotura du bizi kalitatearen kontzeptu zabalagoarekin.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es